
01 08
TXABOLAK (“CHOZOS”)

Txabolak edo mahasti gordelekuak, besteak beste, Arabako Errioxa bezalako eskualdeetan dauden landa eraikuntza txiki tipikoak. Harriez eginak daude eta, normalean, zirkulu itxurako edo lau angeluko planta dute. Ate bat dute eta batzuek, baita leihoak ere. Kupula faltsu batez estalita daudenak, bereziki, nabarmentzen dira.

Haien zeregina nekazaria edo artzaina eguraldi txarrez babestea zen, inguruko soro landuak edo herrietatik urrun zeuden bazkalekuak ez kaltetzeko. Nekazaritza tresnak, eta aldi baterako, uztak gordetzeko ere erabili ohi ziren.

Oro har, XIX. mendearen bigarren erdialdean eraiki ziren. Egun, dagoeneko, ez dira erabiltzen, baina kontserbatu diren eskualdeetako paisaiaren eta kultur ondarearen elementu bilakatu dira.

Gehiago jakiteko: LEIZAOLA, Fermín. - Txabolas cupulares de Euskalerrria. En: Pyrenaica nº 115 (1979).



Txabolak Nabaridasen, “El Escribano” deituriko zonaldean. Gertuena kupula faltsu batez estalita dago. Bertan, bere ateburudun atea ere ikus daiteke.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. UTM 30N ETRS89 // X: 531447.7054 // Y: 4710733.8137 // Z: 525 m. Nabaridaseko bi txabola (Arabako Errioxa), “El Escribano” parajean kokatuta, aipatutako herria Biasterirekin lotzen duen A-4207 errepidetik gertu. Proiektatutako itzalei esker, ortoargazkian euren itxura atzeman daiteke. Horrela, barne txabolako kupula faltsua argi eta garbi ikus daiteke.